


ZER
ALDIZKARIA

414. zenbakia
2015 JORRAILLA

**Bizkaitarrei
Bizkaieraz**



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

**ARANA
GOIRI
SABIN:
Nortasuna**

**Euskerazaleak Alkartearen
urteko batzar nagusia**



Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2014-2015 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 47. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 13an

47. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 13 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille




Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN URTEKO BATZAR NAGUSIA (Bilbaon 2015n Epaillaren 26an)



Bi milla eta amabostgarren urtean Epaillaren 26an arratsaldeko zazpitan zirala, Euskerazaleak Alkartearen Zuzendari Batzordeak, aurretiaz deia eginda, Batzar Nagusia egin eban.

Bilbaon, Kolon de Larreategi kaleko 14n zenbakian, 2gn solairuan dagon Euskerazaleak Alkartearen giza etxean.

Batzar onetara, aitatzten diran batzarkideak batu ziran:

- Alonso´tar Margarita.
- Arrieta´tar Koldobike.
- Arrieta´tar Itziar.
- Fernandez´tar Karmele.
- Egurrola´tar Iñaki.
- Barroeta´tar Klaudio.
- Atutxa´tar Paul.

AURKEZPENA:

Leenengo, batzarrari asiera emoteko, Barroeta tar Klaudio Euskerazaleen alkarteko lendakariak batzarraren antolakuntza zelango baldintzatan egingo genduan adierazi euskun.

Ondoren, zutunik abestu euskun emen agertzen dan bertsoa:

TANTAKA

ESKERAZALEAK da
alkarte euskalduna,
bazkide jatorrakaz
egindako andana.
Bazkideak bear dau
benekotasuna,
bai etxe ta kalean
euskera dagina,
biotzez ama izkuntza
maitatzen dauana.

1´go .- IDAZKARIA:

Atutxa idazkariak, aurreko Batzar-Nagusiaren 2014ko agiria irakurri eban eta ontzat artu zan.

2´gn .- 2.014ko DIRU KONTUAK:

Karmele arduradunak auxe esan euskun:

Aurten be, betiko moduan etxeko kontuak emongo dautsuedaz.

Aurten, igaz emon euskuen antzera be, dirua emoten ba dauskue, egutegia, ikasturtea, ipuin sariketa, web orria, euskal astea ta beste ekintza batzuk egingo dira.



Ekintza orreik egiteko, guk betiko lez %40'eko diru kopurutik ipiñi bear dogu.

Eskerrak emon, Aldundiari eta Udalari.

Eta beste barik datorren urte arte.

Karmele Fernández (diruzaiña)

Eta Karmelek aurkeztu ebazan kontu oneik, ontzat artu ziran.

3'gn.- URTEKO EKINTZAREN AZALPENA:

Eta datorren urrengo arlo onen azalpena, Barroetatar Klaudiok adierazi eban lendakari lez.

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN 2.014n URTEKO EKINTZAK

Adiskideok:

Urte guztietan lez, Batzar-Nagusi onetan, urte barruan egin doguzan lanen barria emoten dogu.

ILLEROKO BATZARRAK eta URTEROKOA:

Utsik egin barik bete dogu illeroko batzarra eta urterokoa, Atutxatar Paulok gure bazkide eta idazkariaren BATZAR AGIRIETAN ikusi daiteken lez.

IPUIN-SARIKETA:

Urte guztietan lez eginda, oneik izan dira aurtengo sarituak:

1'go SARIA:	Etxebarriatar Juan Manuel
2'gn SARIA:	Muruatar Jose Mari
3'gn SARIA:	Leniztar Arantza
4'gn SARIA:	Legarretatar Asier
5'gn SARIA:	Merinotar Palmi

EUSKAL ASTEA:

Euskeraren Astea be ospatu genduan Zemendiaren 24'ko. egunetik 28eko egunerarte:

- 24- Urangatar Erika.
- 25- Larreatar Angel
- 26- Larreatar Angel
- 27- Barroetatar Klaudio
- 28- Atutxatar Paul

TAKOA BIZKAIERAZ

Betiko lez takoa argitaratu dogu Bizkaiko Foru Aldundiaren diru laguntzagaz.

Diru laguntza eukiten ba-dogu, jarraituko dogu Takoa argitaratzen, baña ori murrizten badauzkue ez da erreza izango guk bakarrik argitaratzea.

Aurten ez dakigu zer gertatuko dan; orregaitik Uztaillarte ez dogu ezer jakingo.

Guk, orritxuaren atzean agertzen dan textoa idazten dogu.

Konturatuko zarie baiña, urtero desbardiña dala, eta 365 zatitxu orreik idaztea lan aztuna dala, ez-bardiñak izatea gura ezkeroz.

Betiko lez, Takoa Durangoko Azokan, arrakasta aundia izan eban.

Jendea oitu da an eskatzen eta zuzen joaten dira Gerediaga Elkarteko tokira gure takoa eskatzera, baita Elkar eta Labayru gana be.

Gainera "Takoa bizkaieraz" eskatzen dabe.

Beste leku batzuetan be banatzen dogu: eskoletan, ikastoletan, parroki batzuetan (Iurreta, Gorozika, Zornotza, Ondarroa, Mungia, Bakio Bermeo e.a.) eta mugako errietan Aretxabaleta, Bergara, Aramaio, Motriku. Gasteiz, e.a.

EUSKERAZALEAK INTERNET'EN

Gure web orria ortxe jarraitzen dau, eta orain arte 500.000 ikusletik gora euki doguz. Ezker Astobiza'tar Jokin'eri.

Eskatzen daben argibide barriagaitik, badakigu geiena, Unibertsitatetik eta orrelako lekuetatik datozela ainbeste ikusle. (Deustu eta Errioxako goi ikastetxeetatik)

Barruen daukazan argibide barriak obetzen saiatzen gara, naiz eta batzuetan antzekoak dirala uste izan.

Prest gagoz beste lan batzuk jartzeko baña "baime-nak" bear doguz eta ez da erreza ori lortzea.

Baten batek or ipintzeko zeozer baleuko, prest gagoz artzeko.

Ez dauka zetan bizkaieraz izan bearrik, "erriko euskerea" izanez gero.

IRAKASKINTZA:

Urte guztietan lez, jarraitu dogu asieratik Alkarte onen elburua izan dan Euskera irakastea.

Ikasleak aspaldian ez dira gitxiagotu eta ez ugaritu be. Irakasle betikoak zintzo jarraitzen dabe.





“ZER” ALDIZKARIA:

Gure “ZER” aldizkaria illero agertu da eta asko poztuten gaitu lan onek, bizkaieraz argitaratzen dan aldizkari bakarra dalako.

Argitaratzeko ez daukagu arazo aundirik, eta errietan ezin dogu diruaren ordainik artu, gitxik ordaintzen dauelako BBK'ko gure aurrezki gutunean.

Eskerrak, irarkolako lana Foru Aldundiak ordaintzen dauskula.

Alan da be, aurrera egiteko asmotan gagoz. Eta zuk be, euskera bizia, errikoa, maite dozunez, lagundu zeinke era onetara:

- Bazkide barrien izena emonaz.
- ZER aldizkarian atarateko lanak bialduz.
- Ekonomi arloan eskua luzatuz.
- Eta diru biltzaleak aurkeztuz.

ETXEA:

Ba-daukaguz arazoak etxe zarra dalako, eta “zerga-berezi” edo ordainketa aundiak diralako daukaguzenak.

Igaz 2014an ordainketa asko egin bear gen-duzan, 2.014ko Dagonillan amaitu doguzenak.

ZUZENDARITZAREN EGOKITASUNA:

LENDAKARIA= Barroeta ta Amorrortu´tar Klaudio.

LENDAKARI ORDEA. = Egurrola ta Madariaga´tar Iñaki.

IDAZKARIA= Atutxa eta Agirre´tar Paul.

DIRUZAIÑA= Fernandez eta Ruiz de Eskide´tar Karmele.

MAIKOA= Arrieta ta Goya´tar Begoñe.

MAIKOA= Arrieta ta Goya´tar Koldobike.

MAIKOA= Astobiza ta Uriarte´tar Jokin.

MAIKOA= Arrieta ta Goya´tar Itziar.

Ontzat artu ziran batzarkide guztiok, eta eten barik jarraituko dabe aurrerantzean.

Amaitzeko, eskerrak emon bear dautsoguz Bizkaiko Foru Aldundiari ta Bilboko Udaletxeari.

Ez gitxiago idazleai, irakurle eta lankide guztiai. Bai ta eskerrak be irakasle eta ikasleei, zintzoak izateagaitik.

Ekintza guzti oneik, ontzat artzen dira.

GALDE-ERANTZUNAK:

Aurten il jakun; Retolaza´tar Jose Antonio gure maikide ta bazkide izanekoa, eta oni buruz bertso batzuk abestu ziran

AMAIERA:


Klaudio lendakariak, batzarrari amaiera emoteko zutundu zan, eta bertso eder au eskeñi euskun:

Amaiera

Zuaitz ederra dogu
intxaurren arbola,
fruitu bigun gogorra
eskeintzen deuskula.
Barruan mamia ta
gañean oskola,
apurgalluz zapalduz,
apurtzen dogula,
mamurtzen dogu gero
ta asetu sabela.

Antzerakoa dogu
EUSKERAZALEAK
bere indarra artuz
gure euskereak.
Aste onetan doguz
ikusten emaitzak,
urtearen zearrez
lortuak izanak,
urrengoetan, barriz,
lortzeko obeak.

Euskadin doguz milla
ekoizpen bikañak
danak kalitatean
obenetakoak.
Orra, Bildots Okela,
Esne ta Eztiak,
Piperra ta Patata,
Sagardo, Olioak,
Egaluze, Sardinak,
ta ezin konta alak.



MUNETXE
Bil- 2015-03-27

Beste barik eta gaueko zazpiterdiak zirala, batzarra amaitutzat emon genduan.

Klaudio Barroeta Amorrortu

LENDAKARIA

Paulo Atutxa Agirre

IDAZKARIA

Olentzero eta Mari Anbotokoa (Juan Manuel Etxebarria)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2014ko sari leiketa. Lenengo saria

Euskalerrian negua sartu zan batean, urtero legez, Mari Anbotokoa, garretan joan zan gauiluntzez Anbotoko egoitzatik Gorbeialdera, Itzinako Supelegor kobazulora.

Supelegor kobazuloak ametsetakoa dirudi baina bene benetakoa da Itzinako azdui ikaragarriaren barruan, Atxuloko begiaren adikunapean.

Atakatik barrurantz bagoaz, kobazulo luze besteko zabala dala ikusi geinke. Barrurantz joan aala, goiko aldetik berezko aitz bitarte alosoko bi ikusi daikeguz, argia dariola, goirik arako begi bi balira legez.


Barrurago, dana da iluntasuna eta misterioa. Leenagokoak argizaiola-argiaz baliatzen jakuzan barruko iluntasunean ibiltzeko baina kandela-argia amatatzen zanean ez ei eben aurrerago egiten badaezpada, zein bizia arriskuan ipini. Gaurko argi modernoekaz joan ezkerro, iluntasun misterioitsu orretan aitzarte estuak eta sakonak dagozala jakin daiteke. Alan eta be, beti kontuz ilunpean. Sakonean, lurpeko erreka batetik sortzen dan laku bat be badago, ez ur andikoa baina alosokoa. Benetan be, egoitza itzelezkoa daukagu Itzinako azduiaren biotz biotzean.

Antxe, Supelegorreko kobazulo mitiko orretan emoten ei eban negu luze, ezo, otz, aizetsu eta goibela Mari Anbotokoak.

Negua, beti be, triste xamarra eta iluna izaten da eta oituta egon arren, urte orretako negua berezia izan ei zan Mari Anbotokoarentzat.

Triste egoan, biozbera, pentsakor, isilik, jakatsu eta biotzerik arako dardarotsean.

Zeozer barruntatzen eban zeru-lurretan eta, jainkosa izan arren, ez ekian argi zer izan leitekean. Pentsatuago eta urdu-riago jartzen zala ikustean, badiotso bere buruari: "Aurtengo neguaren asierako egunean Aralarren jentilei ekialdeko argi bereziagaz gertatutakoa egia ez ete da gero? Ala dirudi, ai ene!



Zerk izan bear ete dau aurrerantzean erria eta gure artean? Norengana joko dau erriak zelango alango kontsultak egiteko? Nork berbiztuko ete dau natura udabarria eltzen danean? Ai enetxoa, au bai dala egon ezina, edan bako ordia eta biotzeko mina!”

Inoiz baino artegago egoan Mari Anbotokoa Supelegorreko kobazulo otz eta utsean. Gorbeiarene magaleko oiartzunean zantzoz, eupada, irrintzi eta jai giroa susmatzen eban eta bildur zan kobazulotik kanpora urtetan.

Gauaroa luze ere luze egin jakon jainkosa zaarrari eta goizaldean eupadak entzun ebazan Itzinako azduietan zear.

Zutundu egin zan Mari Anbotokoa, eta arin egin be, ilargiaren argipean ikusteko eupadots orren atzera-aurrera.

Nor ete zan, zer ete zan, ara an non ikusten dauan Olentzero, sabelari eutsi ezinik, irribarreka, pipa ortzetan dauala eta zakuto utsa bizkarrean eskegita.

Mari Anbotokoak, jakinguraren intziguaz, aserre egin bearrean, abegi onez artu eban Olantzero bere kobazuloan eta bere barruko mingostasuna disimulatuz onantxe egin eutsan berba Olentzero zoriontsuari:

- Zer dala eta zu emendik? Zerk ekarri zaituan baino ez da Aralar menditik Gorbeiaraino? Zer gertatzen da ba negu sartu barri onetan ain pozik egoteko?
- Ara, Mari, gure jainkosa, sinistu be ez dozu egingo atzo arrastian zer gertatu jakun. Aralar mendian gengoan, urtero legez, neguko solstizioaren asiera ospatzen eta ustekabean, argi berezi bat agertu jakun ekialdetik. Ezin genduan ezer ulertu eta jentil zaarrak “Kixmi” jaiio zala argitu euskunean, an gertatu zan gertatzekoa!
- Zer? Zer gertatu jatzen? Kontaidazu atoan!- esan eutsan Mari Anbotokoak dana jakiteko egarriaz.
- Ba, aitu Mari, gure jentil zaarrak ekialdeko argi berezia ikusi eta “Kixmi jaiio da, gureak egin dau, aro barria dator eta bota nagizue amildegira” esan euskunean, beste jentil guztien arte artu eta aitz trokara bota eben gure jentil zaar itsutua. Eta ez ori bakarrik, beste jentil guztiak be ez eben bota ba euren burua Aralerretik beera Arraztara-nera eta dentilarri deritzon arri endemonino batek betiko zapaldu eta estaldu!
- Ez da egia izango? -arrituta Mari Anbotokoak. Eta, orretara, zuk zer egin zenduan ba?





- Nik neuk?- erantzun eutsan Olentzerok iribarreari eutsita-. Ba, ara, Mari. Burua txapela eroateko ba-karririk ez danez, pentsatu egin neban, aushartu obeto esanda, eta auxe esan neban neurekautan: "Aro berria datorrela? Datorrela. Norbaitek egin bearko dau zubi-lana ezta? Ba, nik neuk, beste jentil lagunok legez neure burua amildegira bota bearrean, errira joango naz eta orain arte lagun izan dodazan erritarrei barri ona zabalduko deutsiet poztu daitezten eta neu be bai eurekaz". Eta axe egin neban, mendian beera baserri eta errietara jaitsi aro barriaren barri emoten.
- Jaitsi eta zer? Zer arrera edo abegi egin eutsun erriko jendeak? Esaidazu egia gero e!- arduraz Mari Anbotokoak.
- Abegi oberik sekula be ez dot ezagutu. Mendirik mendi, basoz baso, aranik aran, bidez bide, baserririk baserri eta erriz erri ibili nintzan "Kixmi jaiio da", "Kixmi jaiio da" "Kixmi jaiio da" deiadarka eta mundu guztiak urten eban kanpora eta sekula eta santa ezagutu ez dodan jai-giro eta bizipoza ikusi eta sentitu aal izan neban euskaldun guztien artean.
- Orduan gure betiko Euskalerrria pozez bete dozu ezta?- itandu eutsan arriduraz Mari Anbotokoak.
- Ba, danak be bai baina batez be gazte eta umetxoak pozak artu ezinik ikusten ziran. Olentzero izen barria be eurek ezarri eustien "Oles aro" aren ondorioz, eta jai ospakizunaz gain jaten eta edaten emon eustien nainon, zer gura eta axe, zeinbat gura eta arexen beste . Ikusten dozunez orrexegaitik naukazu emen sabelari eutsi ezinda betekadaren betekadaz.
- Berri on ori emon eta gero zer egin zenduan jakin daiteke? -inotsan keskaturik Mari jainkosa zaarrak.
- Oba ez, Mari! Ara, ain ikusi nebazan pozik, batez be umetxoak, auxe esan neutsien, neure biotz-biotzerik ara: "Aro barriaren barri ona ekarri deutsuet eta orain banoatsue Supelegorrera baina ez betiko, datorren urtean barrien barriz etorriko naitzue danoi barri on ori gogoratzen eta umetxooi eguberri-opariak ekarten. Agur t'erdi eta banoa zuokaz bizi izan dodan guztia kontatzen Mari Anbotokoari!"
- Ai Olentzero, oraintxe ulertu dot zure ustekabeko bisitaren nondik norakoa. Ai ene! Zuk beintzat argitu dozu zure etorkizuna urteroko bisita orregaz, baina nik zer? Zer egingo dot orain aro barriko jainkoaren aurrean? Zer esango dau erriak? Nork emongo deustso udabarriari asiera ni ez banoa urtero Anbotoko

kobazulora negua Supelegorren emon eta gero? Erriak nori egingo deutzaz kontsultak orain arte legez? Berba baten esanda, nork zainduko dau natura aurrerantzean?


- Aitu, Mari jainkosa, -erantzun eutsan Olentzerok onezean. Gu aro zaarrekook, dana izan gara erritarrentzat. Orain aro barria etorri jakie eta, jakina, aro barriko oiturak jarraituko dabez geienbat. Dana dala, aro batetik bestera ez da golpean pasatzen eta erriak aro zaarrekoengan be siñisten jarraituko dau eta gu, badaezpada, emen egongo gara, ez ain agirian baina emen, gura dauanaren zain. Zer deritzazu?
- Tira ba, -erantzun eutsan Marik apurtxo bat lasaigo-, belea baltzago ez da egingo eta zuk esan deustazun moduan, erritarren lagun izaten jarraituko dogu, zuk zeure erara eta nik neuk neurera.
- Eta lamiña eta gainetiko guztiekaz zer egingo dogu ba? - itandu eutsan Olentzerok-.
- Zer? Ba auxe. Aro zaarreko guztiok, erriaren sinismenean zelanbait bizirik jarraituko dogunok, noski, ementxe, Supelegorreko kobazulo mitiko onetan alkartuko gara eta emendixik egingo dogu gure bizitza kristauaro barriari deutzala.

Eta alaxe egin ei eben. Mari Anbotokoa, Olentzero jentila, Zizili lamina eta gainetiko guztiak alkar batu ei ziran Supelegorren eta euren erara antolatu mundu barriko bizitza, beti be, gura ebanari aolku onak emonez eta lagunduz betiko amalurtasunean.

Mari Anbotokoa udabarriz udabarri joaten zan garra dariola Gorbeialdeko Supelegorretik Anbotoko egoitzara eta an emoten ebazan udabarri, uda eta udagoiena, uztak lortu arte, gero neguan barriro itzultzeko Itzina barruko Supelegorrera naturaren loaldia bizitzeko, arako, Grezian, Demeter jainkosak bere alaba Persefone Hades-engandik udabarrian atereaz eta neguan sartuaz egiten eban antzera.

Olentzerok, urte luzean zear, an or emengo garautako ur, intxaur, gaztaina, jostailu eta abar guztiak batzen ekiten eutsan, gerora, urrengo Eguberrietan errira joan eta umetxoei eskeintzeko alaitasun giro ederrean.

Urteak joan, urteak etorri, gaur egun be olan-txe dabil gure Olentzero, Gabonez Gabon, garaian garaiko opari bila ume, gazte eta eurekin batera danon bizipozerako.



ARANA GOIRI SABIN: Nortasuna



Zer da egiazko nortasuna eta zeintzuk bere ezaugarriak eta bereizgarriak?

Benetako nortasuna aztertzea eta jakitea ez da gauza erraza. Beraz gure asmoa idazlan onetan izango da gizartean nortzuk izan diran berebiziko nortasunaren ereduak.

Arana Goiritar Sabin aukeratu dogu idazlan onetan bizi osoan egiazko nortasunaren jaun eta jabe izan zalako. Aurten da bere Jaiotzaren 150 Urteurrena (1865-2015). Sabin Aranaren gaztaroa Euskal erriarentzat oso illuna, gogorra eta negargarria izan zan, batez be, Karlista gerrateagaitik, gure lege zarrak eta euskal erriaren nortasuna eta eskubideak galtzeagaitik. Zer egin? Emen agertuko da bere nortasunaren barruko indarra eta amets zolia.


Lenengo eta beñ Euskal gaietan murgilduko da, euskera ikasi eta ikasi, Euskaldunen kondaira aztertu, gaurko egoera ondo ezagutu, zelan eta nundik nora lortu gure izakera eta askatasuna. Auxe da bere kezka eta ardura bizia.

Euskal jakitunak eta erria zer?

Sabin jaunaren aldi berekoak ziran Unamuno, Baroja eta Maeztu eta argi eta garbi ezagutzen eben Euskal erriaren kondaira eta egun aretako mendetasun larria. Baña jakitunak eta euskal erria lozorroan dagoz. Au dala ta Sabinen leloa eta errepika izango da “Itxarkundea” “Itxartu zaitez euskotarra” Sabinekin euskaldun burutsu eta jatorrak bear ditu bere egitasmoa aurrera eroateko. Baña eztau ikusten iñoren eta iñungo laguntasunik ezta babeslerik. Zer egin? Arazo eta korapillo gogor onetan Sabinen nortasuna Anbotoko atxaren antzekoa da, tinkoa eta autsi eziña. Euskadiren eragiñez bera izango da Euskal gizartearen gidaria.

Euskaldunen Aberria Euskadi da.

Sabinek 1893 urtean “La Independencia de Bizkaia” liburuxka argitaratu eban. Bere lagunekin itz egiñez erabaki eben batzar bat egitea Larrazabal baserrian, liburu orren gai barriak azaltzeko.



Amazazpi gizonezko batu ziran aperi bat egin eta Sabin jaunaren itzaldia entzuteko. Zeintzuk dira itzaldiaren gaiak? a) Zer izan dan Euskal erria, bere kondaira berezia, lege zarra eta buru jabetasuna, b) Zer eta zelan dan gaurko egunetan bere egoera larria, uztartu eta katigatua. d) Zer egin bear dogu askatasuna lortzeko, aberri barri bat sortu eta sendotzeko?. Erne: "Euskaldunen aberria Euskadi da"

Emen sortu ziran, aurrez aurrez, txistukadak, isekak eta iraiñak, "buru bako ameslari, traidore eta azpizapoa" Sabinen alde bere anaia Luis eta beste lagun bat agertu ziran. Etziran izan makalak Sabin agurgarriaren buruko miñak eta biotz urraturak. Baña gizon sendo, ameslari eta bulartsuari atseka-bea atsegin iturria biurtzen da. Zer egin? "Ad augusta, per angusta". Aintzaren zoria bide latz eta estua da. Eta orrela "altius, citius, fortius", au da "gorago, ariñago eta indarrago ekin bear". Sabin jaunari neke-lorrik baltzenetan sortzen jako gurari ta irrika zoli ta bizia, ezdau burua makurtuko, ez eta aberriaren alde adorea galduko. Au bai, benetan, egiazko nortasunaren garaipena.

Larrazabalen arturiko destaiña eta adarkada ondoren arritzekoa da, benetan, Sabiniek barnedarra

ez galtzea eta, batez be, Euskadiren alde jokatzeko gogo baikorra izatea. Egiaz, Sabin ez da geldi ego- teko mutilla. Jo ta ke ekingo dau Euskadiren alde.

Ona emen bere ekiñaldiak. Billbon zabaldu dau lenengo batzokia. Urte askotako lana buru- tuz Aberri barriaren ikurriña aizetara zabaldu dau, 1895 urtean fundatu eta legeztatu dau JEL-PNV

Bizkaitarra aldizkaria argitaratu dau, eta Luis, bere anaiaz, gau ta egun, diardu idazkiak egiten eta argitaratzen. Astekari onetan agertutako idaz- lan batzuk sortu dabe ekaitz gogorra bere aurka. Sabin une onetan alde batetik maitatua da, beste aldetik gorrotatua, España eta bere erakundeetan, barriz, "gizon arriskutsua". Beingoan sortuko dira auziak, epaibideak eta azkenik (1895) espetzeratua izan zan Larrinagan. Emen egotaldi bat egiñik li- bre geratu zan. Larrialdi onetan zer? Kuku egin? Bai zera. Gure mendietako aritzak aize boladakin sustriak sendotu, eta gerria finkatu egiten daben bezela, Sabin be, zoritxarretan indartu egiten da. 1895 urtean Bizkaiko Aldundirako auteskundeak egiñik 4.500 jeltzailleak jokatu eben bere alde, 5 zinegotzi lorturik eta bera Diputatu izanik. Sabinen nortasuna eta Euskadiren nortasuna garaille izan ziran.



EUSKADI. Sabin jaunak asmatutako deitura da, baña zeintzuk dira beraren barruan sartzen diran lurraldeak? Ona emen. 1894 urtean, uztaillak 14, Sabinekin egiten dau Bartzar nagusia gai ori aztertu, eztabai-datu eta ebazteko. Eta batzarkideen erabakia auxe izan zan. Euskadi da: Araba, Benabarra, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nabarra, Zuberoa. Danak daukez eskubide bardiñak, askatasuna eginbearretan, askatasuna banatzeko, eta euskera izango da izkuntza ofiziala. (Martin Ugalde, Euskadi Historia, IV 408 orria).

Nortasunaren garaipena

Sabin jaunaren egunetan, euskal gizartea oso motela, gatzbakoa, eta naaste gori baten sarean sartuta bizi da euskal erriari buruz. Gure erriak gidari bizi eta eraginkor baten premiña dauko. Sabin Jauna izango da, zorionez, erri motel onetan eragin berezia, orantza jaikigarria erriaren barne muiñetan. Auxe da bere bizi-tzako asmo goragarria. Origaitik fundatu eta indarberrituko dau Alderdi Jeltzaillea.

Illunabarra.

Sabinek erri guztien eskubideak eta askatasuna maite dauz eta Kubak askatasuna lorturik, Zorionak emenez, telegrama bat bialdu eutsen ango agintariei. Ostera be espetxeratu egin dabe. Egun gitxi barru adison gaxoak jota urten zan itzalpetik eta Sukarrietara aldatu etxekeekin eta bertan Libe izeneko antzerki polita idatzi eban.

Gure irakasle eta gidari goragarria il zan 1903 urtean. ogeita amazortzi urtekin. Aingeru Zabala, jeltzale zintzoa eta jatorra, izan zan bere ordezkoa

Egunsentia

Sabin jaunak burutu dau bere egitazmoa eta emen geratu zan berak sortutako Euskal Alderdi Jeltzaillea. 1917 urtean ospatu ziran Bizkaian, Aldundi eta Udal auteskondeak, eta jeltzaileek geiengoagaitik irabazi. Ramon de la Sota eta Aburto izan zan Diputatu eta Lendakari. Aberri barriaren azi oparotsua ereinda dago eta Euskadi osoan bere erakundea aurrera ta gora doakigu. Sabin agurgarria bizi da eta biziko da Euskadin.

Sabin jaunaren nortasunaren ardatza eta ametsa beti izan zan: Jaungoikoa, lege zarra, Euskadiren pizkundea eta Pasko eguna.

Zenon Uriguen
Pasiotarra



SABINO ARANA GOIRI (2015-I-28'an)

- 1- Milla zortzireun irurogeita bosgarreneko urtea,
urtarrillaren ogeita seian jaiotza baten partea;
Sabino Arana munduratu,
izan gendun suertea,
Euskadin giro berezia da ordutik orain artea.
- 2- Ongi dakigu Sabino Arana Bilbaon jaioa zala,
bere gurasok izandu zitun Santiago-Paskuala;
Karlistak gerra galdu zuten da Lege Zarrak bereala,
Sabino jabetu, gure erria, galdutzero zijoala.
- 3- Gure erriko ainbat nortasun gutxi etzituan landu,
eta geroztik bere aziak etekin pranko eman du;
nai zuana zan gure Euskadi jabetuta euskaldundu,
orretarako anai Luis'ek etzion gutxi lagundu.
- 4- Euskaldun kondaira ondo aztertuz Bilbao orretan murgildu,
Zazpiak Bat iritsi artean gizonik ezin trankildu;
zalantzik ez da laguntzalleak, oparo zitzaizkan bildu,
espetxean ere sartu zuten, Sabino etzan ixildu.
- 5- Milla zortzireun larogeita amalaugarren urtean,
lenen ikurriña zintzilikatu Bilbaon batzoki batean;
mundu guztira zabaldu zana euskaldunaren artean,
gure etsaiak orrela jarri ziran amorru batean.
- 6- Andik urtebatera sortu zan itxaro zan oparia,
aitortu bear urte urare izan zala ugaria;
Eusko Alderdi Jeltzalea zan, da Sabino gidaria,
gure buruak eta zentzuak piztu zitun gudaria.
- 7- Milla zortzireun larogeita emezortziko galdeak,
Bizkaiko Aldundirako noski izanik auteskundeak;
lau milla eta bosteun boto baziraden jeltzaleak,
bost zinegotzi osatu ziran da pozik euskaldun jendeak.
- 8- Ondoren artan Kubak iritsi zularik askatasuna,
Sabino izan zan Kubaren alde orduan itzegin zuna;
Arana berriro kartzelara ura zan estuasuna,
ori izan zan españitarrak emandako erantzuna.
- 9- Txalogarria degu benetan Sabino Arana ekintza,
milla bederatzireun da iruan amaituz bere bizitza;
azaroaren ogeita bostean eman zuan azken itza,
ogeita emezortzi urtekin, geroztik nola gabilta ?
- 10- Sabino Aranak berekin zitun talentua ta zentzuna,
bere mitiña izandua zan leku askotan entzuna;
danon Jabeak deitu zionda eman zion erantzuna,
zeru ederrean izandu zezan emen iritsi etzuna.

11- Sabino, zerutik begira or
zaude modu arrituan,
gaur iñor gutxi jabetutzen da
izan zendun merituan;
euskaldun izena daramakigu,
danok gabiltza pleituan,
Jaungoikoa ta Lege Zarra ere
ondo aztu genituan.

12- Aberririkan ez da maitatzen
zuk maitatu zendun eran,
agindu naia eta dirua
jarri zaizkigu aukeran;
erdal-kutsua ezurretaiño
sartua dago euskeran,
okertu giñan da ez dakit-ba,
berriz zuzenduko geran.

Txomin Garmendia





Afrika' ko ipuin/alegiak

Oiñetan indarra

Alegietan agertzen dauz gizakiak bere bildurrak eta itxaropenak. Ghana'koa da urrengo au eta irakatsia, bes-teen iruzurrari eta maltzurkeriari kontua eukiteko da. Sarritan zurrena dana iruzurtua izan leiteke makal edo ezjakin baten aldetik.

Erege-leoiak bere urte-eguna ospatzea erabagi eban beste pizti guztiak be orretara sartzen zirala eta orretarako artzaiñai agindu eutsen barri au zabaldu egiela lantzar zabal guztietan ardiak zaintzen ebezenean.

Urte-egun orretan pizti asko batu ziran leoiaren abi-aurrean. Jesarri ziranean, leoiak esan eutsen:

-Nire erreñuko erritarrok! Nire urte-eguna ospatzeko leiaketa bat egingo dogu.

-Ba daukagu zure urte-egunaren barria, agertu egiguzu leieketea zein dan -esan eban urretxindor ausartak.

Leoiak kopetillun begiratu eutson txoritxu beillegiari, baiña bere urte-eguna zan lez, eta umore ona agertu gura ebalako, iraiñari entzun-eza egin eutson eta jarraitu eban:

-Sari on bat emongo dausat, zugatz orretako intxaurrak oiñagaz jota botaten dauzanari.

Pizt askok asarrez erantzun eban, zugatza lodia ta aundia zalako. Batzuk alegindu ziran, baiña oiñak zaurituarren ez eban ezer lortu. Azkenean elefantea urreratu zan eta onek be ez eban ezer lortu. Galduta ikusi ebezan euren buruak.

Bitartean aramua ezkutatu egin zan eta jokabidea artu eban isillean uso bigaz.

-Zuek -esan eutsen aramuak- ezkutatu zaiteze zugatzaren abar-artean, artu intxaur bat eta pikuan euki. Nik zugatza joten dodanean, bota intxaurra.

Aramua joan zan beste piztiak egozan lekura eta indarra erakusten asi zan. Piztiak barre egiten eutsoen, txikia zalako eta ganorabako gauzak esaten ebalako. Orregaitik ez ebezan ikusi uso biak zugatz-abarren artera sartzen eta orixe zan aramuak nai ebana. Pizti guztien aldetik iraiñiak eta izekak entzunda, bera zugatzera urreratu zan gogotsu.

Anka bat jaso eta sendo jo eban zugatza enborrean, baiña ez zan zaratarik entzun. Piztiak gertu egozan aramuari izeka egiteko, baiña bat-batean plop! plop! Jausi ziran intxaur bi. Arrituta geratu ziran eta leoiak aramuari emon eutson saria.

Joan ziran piztiak bakoitza bere lekura baiña aramua atzeratu egin zan usoai berba egiteko.

-Eskerrik asko! -esan eutsen- orain beste mezede bat egiteko-tan, intxaur-azalen irurena bagerik, erdia emongo dautzuet

-Zer da nai dozuna? -Itandu eban uso-arrak



-Zatoze eta jesarri nire etxeko sabaian nik tam-tam jotzen dodanean -esan eutsen aramuak.

Usoak alkartu ziran urrumaka eskatzen jakena erreza zalako eta onartu eben lana.

Aramua etxera joan zan eta sabai osoan argizaia zabaldu eban. Jo eban tam-tam eta bat-batean usoak etorri jakozan etxera eta ezarri ziran sabaian. Laster konturatu ziran iruzurra egin eutsela, zenbat eta gogo geiego iges egiteko, egoera larriagoa zan. Laster argizariz bete ebezan egoak eta oiñak. Orduan aramuak artu ebazan usoak eta kutxa baten sartu ebazan eta gero itxaur-azalak lurperatzen joan zan, baiña lenago esan eutson semeari:

-Otsoa ba dator, emon usorik txikiena.

Etorri zan otsoa eta aramuaren semeak emoitz eulaka esan eutson.

-Ez zaite joan usoa artzera -esan eutson otsoak-, okerrekoa artu eta aundia emon bagerik! Ori egingo bazendu, aitak zigortu egingo ninduke!

Otsoa bakarrik joan zan kutxara, jan ebazan uso biak lumak bakarrik itzita eta pozik etxeratu zan. Aramua intxaur-azalak lurperatuta etorri zanean, semeari itandu eutson:

-Emon dautsazu otsoari uso txikia?

-Bai -esan eban semeak- baiña obeto esateko berak artu dau.

Idegi eben kutxea eta lumak ikusi ebezanean, aita konturatu zan zer jazo zan eta semea zigortu egin eban.

Gero aramua otsoaren billa joan zan:

-Nire etxera ba zatoz uso bat emongo dautzut, otso jatunaren barririk ez eukelakoan.

-Eskerrik asko -esan eban otsoak- baiña orain ez daukat goserik

-Ondo dago- jarraitu eban aramuak, emoitz ori ezin egin badautzut, datorren aize indartsuari aurka egiteko lagunduko dautzut.

-Zertarako dator ori? -esan eban otsoak. Sasoi onetan badagoz aize indartsuak, baiña ez dira arriskugarriak

-Badakit ori- esan eban aramuak-, baiña datorren au indartsua da eta zure betuleak be ondo lotuta ez ba dagoz, itsututa itziko zaitu. Gura badozu josi egingo dautzudaz betuleak, nire adiskidetasunaren ezaugarri lez.

Otsoa artega jarri zan baiña ez eban iraindu gura aramua. Eta onek josi eutsozan betuleak.

-Ikusten dozu ezer?- itandu eban aramuak.

-Ez. Ezer be ez-erantzun eban otsoak.

-Ondo dago -esan eban aramuak palu bat artutazeutzat ori! esan eta golpe bat emon eutson sorbaldan Otsoa miñez garrazika egoan, baiña aramuak jotzen jarraitu eban esanez:

-Au be zeutzat lapur baragarri orrentzat! eta au! eta au!

Azkenean betuleak askatu egin ziran eta atea ikusi eban otsoak. Bildurrez eta miñez orro bat egin eta arin urten eban etxetik, erri guztia igaro eben eta lantzar aundietara joan zan. Lotsatuta ikusten eban bere burua eta geiago ez zan etorri, orregaitik, gaur be otsoak aparte bizi dira, beste piztiakaz nastatu bagerik.

OLAZAR'tar Martin'ek †



Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



Sudoku

		1	3			2		
	6			4		7	9	
	8							5
8					4		1	
				5				
	7		6					4
9							3	
	4	5		1			6	
		7			2	9		

6	3	9	2	8	7	4	8	2	9	5	1
2	4	5	9	1	3	8	6	7	8	6	7
9	1	8	5	6	7	4	3	2	4	3	2
1	7	9	6	3	8	5	2	4	4	2	4
3	2	4	1	5	9	6	7	8	8	6	7
8	5	6	7	2	4	3	1	9	9	3	1
7	8	3	2	9	6	1	4	5	5	4	5
5	6	2	8	4	1	7	9	3	3	7	9
4	9	1	3	7	5	2	8	6	6	2	8

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan)..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Nafarroa, arragoa,
argiaren pausaleku
aizearen ibil-toki zabal,
esirik gabea.

Nafarroa, arragoa,
sua eta ura,
kondaira urratu baten oiartzun oiukatua.
Ametz bat baino geiago,
ez oparotasun osoa:
naiaren eta ezinaren
burrukatoki ekaitzez betea.

Nafarroa, arragoa
maats eta gari
maitasun eta gorroto
gezur eta egia gurea.
Nafarroa, arragoa
lur beroen sabel emankorra
eta goiko mendi otzen mendetako loa.

Nafarroa, zuur eta eroa,
lurrik maitatuena,
ormarik gabe utzitako etxea:
erreka gardenen negarrez
ibai lodietara ixurtzen ari den
odol bustikoarraren iturri bizia.

Nafarroa, arragoa
eta oinarri, eta oinaze
eta bidean zure bila ibiltzea ...
Pinudiek usaintzen dituzten
arri txigorrezko bidetan gora
o, Nafarroa, Nafarroa betikoa.

Bardea zuriko sorgin-tximinia